

## San Andres eliza (Ibarrangelu)

### Eraikina

San Andres eliza hegoaldera orientaturiko hegian dago. Hegi hori malda nabarmeneko da. Hura Elantxobeko arrantza-portua Elexaldeko erdiko gunetik bereizten duten kostaldeko mendiskek itsasoko haizeetatik babestuta dago. Erdiko gune horretan elkartzen ziren Ibarrangeluko nekazariak.

Eliza hau XVI. mendeko eraikina da, osorik desagertutako Erdi Aroko eliza bat zegoen leku berean eraikia. Eliza horren nagusiak Arteagatar eta Zubietatar oinetxeetako jaun-andreak izan ziren 1325az geroztik. Beraiek apaizak izendatu eta auzotarrengandik hamarrenak jasotzen zituzten. Beste ordainketa batzuen artean Elantxobeko seniatik ehizatutako balea guztien mihia beti gordetzen zuen elizak beretzat, eta hura salduz atera zenaz ordaindu ahal izan zen hura berriz eraikitzea.

Egungo eraikina nabe luze eta zabal bakarreko eliza da. Haren luzera zabalaren bikoitza da. Ez du mendebaldean eraikitako koru gorearen tribuna beste barne-konpartimentaziorik. Harlandu errenazentista oneko hormaz eraikita dago. Horma horiek haren garaieraren bi herenak estaltzen dituzte. Harri-hormak diren paramentuek osatzen dute estaldura. Berauek ganga mailari dagokion tartean daude.

Eliza 1922an egin eta Jesusen Bihotz Sakratuaren eskulturak (1945) errematuriko dorreak eta beraren alde bi estaltzen dituen atariak estalita agertzen da. Eliz atari honetara irekitzen dira tenpluko sarrerako bi ateak: oinetakoa, 1720 inguruko barrokoa dena; eta hegoaldekoa, 1520 inguruko dobela luzeetako arku zorrotza zatekeena baina egun ateburu faltsuan berriro landuta dagoena. Iparraldeko fatxadan (egun ezin da sartu) egon zen beste atari estali bat ere, eta antzeko sarrera-arkua ikus daiteke, galdu dena.

Ibarrangeluko San Andres eliza ia paregabea da bere generoan. Izan ere, aparteko barne-ganga du. Nabearren gainaldea haritz-zurezko teilatu erraldoi polikromatua da, hamabost ganga izartsu itxuratzen dituzten zurezko nerbio, gako eta arkuen bitartez egituratua.

Arotzi egitura handi hau hormen barruko aldeari atxikitako zutoin bikoteen gaineko zurezko lau diafragma-arkuren gainean oinarrituta dago.

San Andres elizako gangek XVI. mendearen hasieran erresumako eliza eta katedralik onenetan modan zeuden beranduko gotikoko harrizko nerbaduren diseinu konplikatuak zurean dakartzate. Ez dira ezagupenik gabeko landa-artisauek egindako erreplika landugabeak. Lan hori bere garaiko arkitektura oso ondo ezagutzen zuen maisu eraikitzaileak diseinatu zuen. Kalkulu eta harmoniazko proportzioen sistema zaila erabili zuen bere garaiko gusturik zorrotzena betetzeko gai izango zen eraikina sortzeko. Alabaina, kostu txikioa zen eta inguruan errazki eskura zitekeen materiala erabili zuen. Herbeheretan eta Frantziako iparraldean bakarrik ziren zurezko gurutzeria-gangok ohikoak. Nonbait, eskualde horietan ohiko merkatariek hangoek sorturikoak imitatu zituzten. Baina beste ezein lekutan ezin da Ibarrangelukoaren neurriko zurezko gangarik aurkitu.

San Andres elizako teilatua 1559an bukatu zen. Data hori gangako hainbat tokitan banatutako kartela askotan pintaturik elementua izan zen. Harria imitatzeko begi-engainua osatzeko beharrezkoa zen, sabaian hargintza despieze faltsua simulatzean. Era berean, pintura hori garrantzizkoa izan zen elizaren erlijio-educiko apaindura osatzeko.

Presbiterioa osatzen duten hiru gangak, Santiagori, San Andresi eta Andre Mariari eskainiak, hurrenez hurren, pintura-alderdian jori eta askotarikoenak dira. Apostoluzaren eta kristauen Erdi Aroko tradizioaren irudiak italiar irudi manieristen aparteko errepertorioarekin nahasirik agertzen dira gangotan. Irudi manieristen artean *puttiak*, atlanteak, mozarroak, kurriloak, gruteskoak, kalaberak eta abar daude, Maitasunaren, Ospearen, Herioaren eta Harrokeriaren alegoria osatzen dutenak.

Era berean, gangari eusten dioten diafragma-arku handien enjutetan agertzen dira gris, zuri eta beltzez pintaturiko eszenak. Beraietan, Deikundearen, ebanjelarien eta Santa Barbararen, Santa Luziaren eta beste done batzuen irudiekin batera, honakook ikus daitezke: gizon groteskoak, mozarroak, zutoihalak, zaldunak, munstroak eta Santiago apostoluaren Clavijoko batailako eszena bat.


San Andres elizak ez zuen harrizko gangarik. Hori zela eta, kanpoko horma-bularrik gabe eraiki zen, horrelakorik behar ez zelakoan. Baina oinen horma 1643an okertzen hasi zen eta berriz eraiki behar izan zen. Eta malda handiagoa zuen Hegoaldeko aldearen zati handi bat 1715ean ostikoz indartu behar izan zen, horma lodiagotu behar izan zelarik. Hortaz, alde horretako gangak partzialki mutilaturik geratu ziren.

### Altzariak

San Andres elizako altzariak antzinatasun eta kalitate ezberdinekoak dira. Rococo estiloko erretaula nagusia nabarmentzen da, salomondar zutabeetako arkitektura duena, urreztatzen 1792an bukatu zena eta hainbat jatorritako irudiz beteta dagoena. Irudion artean XIV. mendeko Andra Mari gotikoa dago.

Balio handikoa da Errosarioko Ama Birjinaren rococo estiloko erretaula ere, Domingo Laka maisuak 1780an egindako lana. Gainerako erretaulak lan modernoak dira.

**Testua:** Alberto Santana.



### San Andres eliza

Ibarrangelu. (*Elexalde auzoa, z/g. Ibarrangelu herriaren erdian dago, udaletxearen aldamenean.*)

### Bisitien ordutegia:

Itxita egon ohi da meza-ordutegitik kanpo. Giltza udaletxean eskatu ahal da.

### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

- (*Elantxobe*)
  - Elantxobeko portua.
- (*Gautegiz - Arteaga*)
  - Arteagako dorrea.
  - Ozollo Errota.
- (*Ereño - Arteaga*)
  - Marmol-harrobiak.
  - Ereñozarko San Migel basiliza.